

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

**Iruña Okako udalbatzaren 2026ko martxoaren 9ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita elkarte edo erakundeei dirulaguntzak emateko, 2026an kultur jarduerak egin ditzaten**

BDNS (Identif.): 895647.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/895647>.

Bat etorri azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke gizarte eta kultura elkarte eta erakunde publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, egoitza soziala Iruña Okan dutenak edo jarduera udalerrri horretan egiten dutenak, legez eratuta edo erregistratuta badaude.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kultura edo gizarte xederik ez duten elkarte eta erakundeak eta ikasleen gurasoen elkarteak.

Hauek ere izan daitezke dirulaguntzen onuradun: Iruña Okako udalerrian diharduten irabazteko xederik gabeko entitateak, nahiz eta egoitza soziala bertan ez eduki. Entitate horiei eskatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzea.

Iruña Okako Udalak eskainitako proiekturen baten antzekoa aurkezten badu talde edo elkarte batek, udala talde edo elkarte horrekin jarriko da harremanetan, aurkeztutako programa guztien bateragarritasuna bermatzeko.

Diruz lagunduko ez direnak. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako inguruabarretakoren batean daudenak.

b) Izaeragatik edo xedeagatik Kultura Batzordeari esleitutako jardun eremuekin zuzeneko loturarik ez dutenak.

c) Edozein motatako zerga betebeharrak (tokikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak barne) egunean ez dituzten erakunde edo elkarteek aurkeztutako eskaerak.

d) Ez dira kontuan hartuko aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen justifikazio memoria entregatu gabe duten jarduera edo programei buruzko eskaerak.

e) Ez dira kontuan hartuko beren jarduera publikoetan indarreko legeria betetzen ez duten elkarte, erakunde eta pertsonen proposamenak (jaiotza tokiagatiko, arrazagatiko, sexuagatiko edo erlijioagatiko diskriminazioa).

**Bigarrena. Xedea**

Deialdi honen xedea da kultura eta gizarte jardueren gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontu mugak errespetatuz; hain zuzen ere, elkarte eta erakundeek 2026. urtean Iruña Okan sustatzen dituzten jarduerak edo udalerrientzat interesgarri jotzen direnak lagunduko dira diruz.

**Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Iruña Okako udalbatzak 2026ko martxoaren 9ko erabaki baten bidez onetsi zituen. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalean argitaratuko dira.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Kontsultatu oinarri arautzaileen zazpigarren klausula.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak eta laugarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, 30 eguneko epea izango da, deialdia argitaratu ondorengo egunetik hasita.

Langraiz Oka, 2026ko martxoaren 25a

*Alkate-lehendakaria*

*MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ*